

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 155/2018 FORU DEKRETUA,  
abenduaren 4koa, zeinaren bidez ezartzen baitira  
2019ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei Pertsona  
Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen  
gaineko Zergan aplikatu beharreko eguneratze-  
koefizienteak  
(BAO Abenduaren 14koa)**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak kostu bidezko edo dohaineko eskualdaketei dagokienez ezartzen duenaren arabera, erregelamendu bidez finkatzen diren koefizienteak aplikatuz eguneratuko da ondare-elementuen eskuratze-balioa. Horretarako, zera hartuko da, batik bat, kontuan: ea zer bilakaera izan duen kontsumorako prezioen indizeak ondare-elementuok eskuratu ziren egunetik eta ea zer bilakaera espero den elementuok eskualdatuko diren ekitaldirako.

Hori dela eta, 2019ko ekitaldian egiten diren eskualdaketetan aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak ezartzen dira foru-dekretu honen bidez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren mendeandakoen ondare-irabazien edo -galeren zenbatekoa kalkulatzeko.

Beste alde batetik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan xedatzen denaren arabera, ibilgetu material edo ukiezinaren zein ibilgetuko inbertsioen ondare-elementuak eskualdatzetik lortutako errenta positiboak zerga-oinarrian sartzeko, errenta horietatik honako hau kenduko da, eta betiere errenta horien mugarekin: eskualdatutako elementuari dagokienez, haren legezko azken egunerapen baimendutik edo, geroago eskuratua bada, elementua eskuratu zen egunetik gertatu den monetaren balio-galeraren zenbatekoa, erregela jakin batzuen arabera kalkulatu. Hona lehen erregela: eskualdatutako ondare-elementuen eta haiei dagozkien amortizazioen eskuraketa-preziora edo ekoizpen-kostua eta arau bidez ezartzen diren koefizienteak biderkatuko dira.

Beraz, foru-dekretu honen helburua da, batetik, arautegia garatzea eta, bestetik, 2019. urtean hasiko diren zergaldietan egiten diren eskualdaketei aplikatu beharreko eguneratze-koefizienteak ezartzea.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea foru arau honetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 4ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

**1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan 2019. urtean monetaren balio-galera zuzentzeko aplikatuko diren koefizienteak.**

**Bat.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauak kostu bidezko edo dohaineko eskualdaketen xede diren ondare-elementuen eskuratze-balioa zehazteari buruz xedatzen duena betetzeko, ondoren adierazten diren eguneratze-koefizienteak aplikatuko zaizkie 2019ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei:

Ekitaldiak	Koefizienteak
1994 eta aurrekoak	1,634
1995	1,735
1996	1,671
1997	1,634
1998	1,598
1999	1,554
2000	1,502
2001	1,446
2002	1,395
2003	1,356
2004	1,316
2005	1,274
2006	1,232
2007	1,198
2008	1,151
2009	1,148
2010	1,129
2011	1,095
2012	1,070
2013	1,054
2014	1,052
2015	1,052
2016	1,052
2017	1,031
2018	1,015
2019	1,000

**Bi.** Hala ere, ondare-elementua 1994ko abenduaren 31n eskuratua bada, 1995eko koefizientea aplikatuko da.

**2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergan 2019. urtean monetaren balio-galera zuzentzeko aplikatuko diren koefizienteak.**

**Bat.** 2019. urtean hasiko diren zergaldietan, honako hauek izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan aurrez ikusten diren koefizienteak:

Ekitaldiak	Koefizienteak
1984ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak	2,524
1984	2,293
1985	2,116

1986	1,992
1987	1,898
1988	1,813
1989	1,726
1990	1,659
1991	1,604
1992	1,555
1993	1,542
1994	1,511
1995	1,443
1996	1,391
1997	1,368
1998	1,424
1999	1,372
2000	1,281
2001	1,262
2002	1,241
2003	1,223
2004	1,208
2005	1,186
2006	1,164
2007	1,124
2008	1,096
2009	1,084
2010	1,082
2011	1,069
2012	1,060
2013	1,053
2014	1,053
2015	1,048
2016	1,040
2017	1,026
2018	1,013
2019	1,000

Bi. Hona nola aplikatuko diren goiko zenbakian ezarritako koefizienteak:

- a) Eskuraketa-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren gainean, ondare-elementua zein urtetan eskuratu edo ekoitzi zen kontuan hartuta. Hobekuntzei aplikatu beharreko koefizientea hobekuntzok egin diren urteari dagokiona izango da.

b) Amortizazioen gainean, egin diren urteko kontabilitatearen arabera.

## **AZKEN XEDAPENA**

### **Bakarra. Indarrean jartzea.**

Foru-dekretu hau 2019ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2018ko abenduaren 4an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,

UNAI REMENTERIA MAIZ